

LAZKAO / Deskontuak euskarazko liburuak erostean, irakurzaletasuna bultzatzeko

DV. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak irakurzaletasuna bultzatzeko abian jarri duen Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa Lazkaora ere iritsi da Goierriko Euskal Eskola kultur elkartearen eta Ordiziako Hitzaro euskara elkartearen eskutik. Topagunearen ekimen honen hirugarren edizioa da haxe eta Euskal Herriko 21 herritan ari da gauzatzen. Helburua irakurzaletasuna oro har bultzatzea bada ere, euskal literaturarena sustatu nahi da bereziki.

Kanpainaren izenak dioen moduan, hiru pausotan egitaraturik dago. Lehenengoa irakurtzea izango litzateke, euskaraz irakurtzea, eta horretarako Lazkaoko liburutegira joatea besterik ez da egin behar.

Kanpainak dirauen bitartean, euskarazteko liburua hartzen duen bakoitzak orri-markatzaile bat jasoko du opari. Edozein liburu aukeratu daiteke, baina ez zalantzak dituztenetzat, 100 liburuko zerrenda bat izango du liburutegiak, gomendio gisa. Horietako 90 berberak dira kanpaina gauzatzen den leku guztietan; beste 10ak, berriz, GEE eta Hitzarotik aukeratu dituzte Goierriarekin zerikusia zutelako edota bertako egileenak zirelako.

Bigarren pausoa, berriz, liburua irakurritakoan iritsiko litzateke. Izan ere, hura liburutegira itzultzean, fitxa sinple bat betetzeko aukera izango da, liburuak egindako inpresioaren inguruan. Fitxa beteta, deskontu-kupoi bat eskuratu ahal izango dugu, Gerriko eta Mujika liburu dendetan erabili ahal izango dena.

Eta hortxe dator kanpainako hirugarren pausoa: liburua erosi eta oparitzea. Izan ere, liburuan jasotako txartelarekin %25eko deskondua izango du aipatu liburu-dendetan euskarazko edozein liburu erosterakoan.

Kanpaina hau uztailaren 24a arte luzatuko da.